

18.
urteurrena

ortzadar

larunbata, 2015eko ekainaren 13a. 407. zenbakia

deia.com

euskal kulturaren kolore guztiak



JURURU


Kubako badia ezkutu baten
enkantuz jabetu eta lekuak
inspiratutako kreazoneak egin
ditu Jose Enrike Urrutia Capeauk,
ipuinak zein margolanak

-- 3.-4.-5. orrialdeak --



JOSE ENRIKE URRUTIA CAPEAU

PINTOREA ETA IDAZLEA

“Antzinako jainkoei eskaintzen zitzaizkien opariak bezalakoak dira nire pinturak”

Lagun zahar baten peskizan heldu zen Kubara, 2000. urtean. Hasieran, Habanako kale higatuetan pausatu zituen begiak lurretako artistak, harik eta Holguin probintziako muturrera jo zuen arte. Hantxe kausitu zuen mirakulua, Jururu, mamu zaharrak bide barrietatik pasiatzeko aitzakia ederra

 IÑAKI MENDIZABAL ELORDI

BARIAY cayoaren ertz batean dago Jururu, itsas-urdiraren eta maniguaren berde biziaren artean harrapatuta. Orduen pisua sentitzen den toki horietakoa da, denborak beste dimentsio bat hartzen duela itsas-bazter arrokatsuan, giro berezia sortuz: amets baten barruan zaudela dirudi. Hantxe egon izan da azken urteotan Urrutia Capeau, bertako biztanle bakanen “bizia zerk animatzen duen jakin guran” eta, bide batez, “barrenetik pizten dituen poztasuna” nondik datorren arakatzek. Hango paisaiak hordituta, jururutarren izaerak txundituta, ipuin-bilduma bat ondu du (*Jururu*, Pamiela, 2015), eta, horrez gain, margolan ugari, hilaren 18tik aurrera Durangoko Arte eta Historia Museoa erakutsiko dituenak.

Hamabost urtetan Kuban zehar hara-honaka ibili ostean, azkenaldian Jururu izeneko baztertxoan paratu zara. Zer aurkitu duzu han?

Jururun ezinago badia ederrak aurkitu ditut —Jururu bera eta Bariay—, baina jende berebizikoa ere bai, bakoitza bere munduarekin. Hemen denok gara elkarren aski antzekoak; hango populu tipian, ordea, ez daude bi berdintsu direnik. Esaterako, eta soilik erlijioa aipatzearen, Lichi masoia da, Los obreros de Oriente logiakoa; Valeria Eliza Ebanjelistakoa, duela guti bateatua; >>

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·


literatura

Felaren seme *Matanzas* Jeobaren Lekuko; Feli, El Cobreko Ama Birjinaren debota; Ñuño, ate inpenitentea; Tony Budu zalea —hilerritik hezur batzuka ateraino izan ere, medikuntza ikasketak egiteko aitzakian—; Orlanditoren emaztea Jemaharen alaba; Walter, Libanotik heldu etorkinen seme izaki, kristau maronita da; Indio Rey, panteista, etab.



Liburua eskaini diozu badiari, eta orain erakusketat bat. Jururu leku bat baino gehiago da zuretzat? Zer aurkitu duzu han, horrenbeste erakarri zaituena?

Jururura agertu nintzenetik badiaren argitasuna pintatu nahi izan dut. Badia bera eta ingurua. Egote naizeneko etxea uretatik bi metro tara dago, leihoa zabaldu-eta, hantxe agertzen da badia bere edertasunean, batek daki egun hartan zer kolorez jantzia. Beraz, zer egingo dut nik, bada, antzinako jainkoei eskaintzen zitzaizkien opariak bezalakoak dira nire pinturak —ez dakit nori eskainiak—.



Kubako Colonen lehenengoko pausalekua dela ere badiozu...

Hori esaten dute, behintzat. Badirudi, turismo funtzionarioak Colonen bitakora kaierari jarraituz heldu zirela Bariay hartara, hots, Jururu cayoaren beste aldera. Cayo osoa parke izendatu zuten Guardalavaca, Pesquero eta beste turismogune erraldoietako bezeroentzako entrete-nigarriekin: *La Aldean* indiar show bat eskaintzen diete, La Lomitako jatetxera eraman aurretik. Turista batzuk zaldiz eramaten dituzte, besteak *jipi*-etan. *La Aldeatik* kanpo, handik hurbil-hurbil, Colon aurreko *taino* indiarren aztarnak daude, turistak ikustera inoiz joaten ez badiara ere.

Pintzelkada arin eta freskoez eginiko margolanak dira zureak, hango paisaiaren 'argazki' oso pertsonalak. Nondik abiatzen duzu koadroa, memoria-tik edo bertatik bertara eginak dira?

Neure eskarmentutik jakin badakit inor ez duela arduratzen ezagun ez duenaren aurpegiak; ez bada emakume bizarduna edo halako bitxikeria, behintzat. Baina jururutarrei beraiei erretratoak egiten dizkiet, askok badute nork bere etxean, eta hemen badut beste dozena bat eramateko. Bertatik bertara pintatzen dut, eta, Euskal Herrian nagoenean, han ateratako argazkiak baliatzen ditut.


Koadroetan Kubako paisaiaren amarauna da nagusi: mangleak, jagüeyak, marabu eta palmondoak, itsasoa, labarrak, eguzkiaren menara dena... Giza-kiak ez dauka lekurik zure imajinarioan, edo hori narratibarako utzi duzu?

Alde batetik, esango dizut inori ez zaiola arduraz ezagun ez duen hainaren erretratu. Beste aldetik, aldiz, nire helburua argiak egiten dituen fantasiak nolabait islatzea zenez gero, bada, giza irudia ez da hoberena xederako; egin nahi dudaren araura, giza irudiak nire begietara berdin lirerateke *argi izpi multzo*, Monet eta koadri-lakoetan bezala; eta handik, argitasuna dudala helburu, akordatu ere ez naiz egiten jendeaz. Bai, ordea, erretratoak egiten dizkiet. Etxe askotan eskegirik dute nork berea.

Narratiban ere Kubari erreparatu diozu aspaldi honetan. 'Weylerren itzala', 2012an, eta orain 'Jururú'. Orduko hartan Valeriano Weyler Kubako kapitain nagusiaren triskantzak aletu zenituen,



5



1. Ñuño arrantzalea da, bakartia eta atea. 2. Feli, goxoa eta abegikorra, El Cobreko Ama Birjinaren debota; 3. Rey, Armindaren gizona; 4. Arminda, Jururuko telefono bakararen jabea; 5. Fela, zorrotza eta bizia; bere seme 'Matanzas' guajiroa da -baserritarra-, Jeobaren Lekuko. 'Jururú' ipuin-bilduman agertzen diren pertsonaia batzuk baino ez dira hauek. Beste asko falta dira, tartean, Javierito, Angelito, Junior, Peluo, Pongo edo Walter. Badiako ertz batean bizi dira denak, bake antzean, naufrago galduek bailiran. IÑAKI MENDIZABAL ELORDI

militarraren profil sadikoa erakutsiz. Oraingoan, ordea, badia eder baten inguruan bizi den jendearen bizitza kontatu duzu, errealitatea eta fikzioa nahastuz. Pertsonaien profilak ikusita, esango nuke ez duzula asko asmatu beharrik izan, ezta? Gogoratu alegia-liburua dela, ez kazetari lana. Badia hor dago, jendea ere bai, baina istorioak neuk asmatu behar ditut; areago dena, istorietako pertsonaia nor bere mailan eta tornuan jarri behar izan ditut, izaerari dagozkion feitek akonplitzen, egitateetatik ere nor berera ezagut dadin. Beraz, ez dezazula pentsa Ñuñoren arrantxora biltzen direnek beren izkribuak uzten dizkidatenik!

Molde diferenteetako ipuinak aurki ditzake irakurleak 'Jururú'-n. Badira harrigarriak, badira irri-garriak, ukitu poetikoa dutenak, pasadizo guztiz surrealistikak kontatzen dituztenak, errealismo magikoa gogoratzen digutenak... Tonu aukeratua edo narrazioak berak eskatutakoa? Istorioek badute alde irrigarririk; berera mol-datzen saiatzen naiz, tonu ironikoa erabiliz edo neurri bateraino absurdoak izan daitezkeen



Koadroetan helburua argiak egiten dituen fantasiak islatzea denez gero, ez naiz akordatzen jendeaz"



Habanan atzerritarrok botin hutsa gara; oster, Jururun ni biztanleetatik bat, besterik ez naiz"

gauzak kontatuz. Bestetan, tonurik ez izaten saiatzen naiz, ahalik neutroen izaten, helburua gauza ezinezkoa dela jakinagatik; Kafkak berak ere, bere biluztasunean, badu tonua, *tonu kaffianoa* hain zuzen.

Naturarekin bat eginik bizi den gizajendea da Jururuko. Eragin handia du naturak beraiengan?

Bai, bizimodua ateratzeko denak joaten dira arrantzara, emazte asko ere bai, dadin kamaroi-tara —oinez eta ur tipitan— ala potinetan badia kanporaino, urpera ere ausartzen direla. Bizi ere, baserrietan egiten dira, gure erara sakanaturik, etxe guztietan daudela oiloak, urdeak, ahuntz-ardiak —*ovejo*— eta zaldiak. Nekez behirik. Garraio-modurik arruntena ere zalgurdia da. Pombok esan bezala, "hemen errezagoa da zaldio-ostiko batek tragatzea, auto istripuz baino!". Halaber dira zaleak mendira joan eta txoriak harrapatzen —*azulito, bambú, brilosito*— tipi tipiak dira, *zum-zum* —kolibri— bateko tamainakoak, halaber inon ikus ez daitezkeen koloretakoak —10na pesotan saltzen dituzte—. Uso zaleak ere badira, tipi tipiak izanagatik eta larrua

bezain gogorrak jateko. Zer esanik ez landareez bezain batean, non ez baita bazterrik hamaika lore kolore baino gutxiago duenik.

Aspaldiko bizimodua ematen du...

Lichik kontatzen du gaztetan bazutela ohitura bat, aste batzuk iragatekoa Robinsonen bizimodua egiten, hantxe, Jururuko punta inguruan, liburuan Punta Gato bateatu dudana hartan. Hara joan, arrantza egin, egurra bildu eta Jurururaino ur bila joatea bide zuten eginkizun. Segur, bonbilak bete *gualfa* ere eramaten zituzten. Irri egiten du Lichik kontatzen duenean ur bila joan-eto-riarian sartuta oilo galduren bat ere eramaten zutela *kanpamendura*. Halatan dira laketa, ur ondoan eta *uvero* baten gerizan, soilik brisaren fereka aski baitute pozik egoteko.

Liburuan agertzen diren pertsonaien profilak ere aberatsak dira: batzuetan kontraesankorrak, bestetsuetan 'naif' antzekoak... Gehienetan, hori bai, korapilatsuak.

Ipuinen batean ager daiteke norbaiten karrikatura, hots, baizik eta haren alde bat agerira ez dakarrena. Baina ondoko istorioan ageriko da pertsona bera beste alde batetik begiratuta bezala, finean haren izaera osoago agerrarazten duena. Zeren, ez baikara eginik bloke batez, baina berintzoz moldaturiko kaledoskopio bederaz. Esaterako, gehienetan Pombito filosofo izaten da —Lichi bezala—, baina ordi denetan “zeu bezalako emakumeentzat, ni bezalako gizonak daude” hasten da kantatzen eta karate *giltzak* egiten —besoa bihurritu eta halakoak—.

Pombito, Junior, Peluo, Ñuño, Jibarito, Rufo, Maxi-li, Arminda,... Pertsonaia literarioagorik ezin. Jite horretakoak dira benetan? Esaterako, nolakoak dira jururutarrak Habanakoekin konparatuta?

Jururuk ez du Habanarekin zer ikusirik, Txonpolok Madrilekin bezainbeste. Habanan atzerritarrok botin huts gara; Jururun ni biztanleetatik bat, besterik ez naiz. Habanan hamar urte eman ditut, eta bertakoek bezala jantziagatik eta buruan kapeiluarekin joanagatik, beti igerrri egiten naut! Horixe haien senaren fina! Esaterako, zoologikora sartzerakoan, kanpotarrok gehiago ordaintzen dugulako.

"Miseria badugu, baina dolurik ez", diote Jururuko biztanleek. Edonola ere, lema latza, ezta?

Hori neuk asmatu eta Ñuñoren ahoan jarri nuen. Uste dut ondo islatzen duela hango bizimoldea, hots, haiek berek antzematen duten bezala.

Zer ematen dizu literaturak eta zer pintatzeak? Konplementarioak dira zuretzat?

Zerikusirik badute nigan, istorioak beti irudieta-rik garatzen hasten dira-eta. Lehenbizian badia ekartzen dut gogora, esaterako egun goibelean eta arrastiriko ordu melankoniatsuan. Gero, agian bezperan ikusiriko mutikoa bere burua badiako uretata pulunpatzen. Gero, korrante bortitza...

Horretaz kanpo, zerikusi gutxi. Pintatzean argitasunari berea ematen saiatzen naiz, berea eta

gehiago ere: tunel batetik irtetea, koloreak turrustan heltzen zaizkigu begietara, lipartxo batera, burmuinak *hori zuhaitza duk, urdinska hura mendia eta berde hori belarra* agintzen digun arte. Tartetxo horretan ez gara ohartzen koloreez baino. Bada, ni lipar horretan kokaturik bizi naiz. Idaztea, aldiz, euskara neure erara erabiltzeko da. Oraingo liburu honetan ez naiz hasi arazo abstraktoez edo Historiako aferez gogoetara. Bai, ordea, leku bateko jendeaz eta bizimoduaz jardun dut, gugandik hain bestelako izanagatik, haien bizia zerk animatzen duen jakin nahian, seguruenik. Halaber, barrenetik pizten dituen poztasuna zertatik datorren. *A gosál!*

'Jururú'-n erabiltzen duzun euskara ez da aspaldian darabilgun 'estandarra', ez da batua. Zertara dator zure euskara molde horren apustua, gaur egun anakronikotzat har daitekeena? Agian, 'pintatzeko' moduko berbak direlako erabiltzen dituzunak?



Lan koloretsuak ondu ditu oraingoan Urrutia Capeauk.

Bazen behin, Bortu Pirineoetako xoko batean juntatu zirela lagun batzuk beren mintzaira menderari gramatika bat eraikitzeke xedearekin. Mintzaira izkribatuaren eredu litzatekeena. Finean heldu zen gramatika: hartan dena nahastekatzan da —non ezin baita euskaldunik buru klar eta argiarekin—: helburua zelarik izkribatzeko manera bat aukeratzea, gramatika bi argudio mota erabiltzen dira erabakiak hartzerakoan: Bata, klasikoeke diotena. Baina ez dakigu nortzuk diren *ente* misterioso horiek, non ez baita aipatzen nor zergatik klasikotzat hartzen den, zeren araura hautatu duten... Bigarrena, esaten da haxe edo bestea dela hoberena. Gramatika, esaten denaren zerrenda! (kar, kar). Ez nuen uste hainbeste ikasi behar zenik konklusio horretara ailegatzeko! Koldo Mitxelena izkribaturik utzi zuen ezen “esaten da edozein gauza, edozein lekutan eta edozein modutan”. Hain zuzen hartarako behar zen gramatika, bereizteko! *Sangocho* horretatik heldu hizkuntzak egia da baduela zerikusirik lehenagokoarekin, kasik badiara hizkuntza bat. Bai, ordea, nik nahiago dut Duvoisinekin Bonaparte Printzeari igorri gutun batean izkiriatu ziona: “Zer dago Axular baitan? Kolorea! Kolorea!”. Badakizu, ni pintorea naiz...

Jose Enrike Urrutia aurkezteko esaldia

JOSEBA SARRIONANDIA

EBROKO baserria ja ez ei dago Durangotik zubia pasatu eta Iddorretako sarrera zaintzen, baina nik hantxe imajinatzen dut Jose Enrike praka laburrekin eta estampa liburu bat eskuan, orriak pasatzen, eta orrien ertzean, hantxe aurreko Ibazabaleko ur herdoil kolorekoa marrazten eta karretera generaleko kotxeen abiantzadaz idazten, eta gero ez dut zertan imajinatu, begiak itxita gogoratzen dut Kurutzia gako jesuitetan ikastetxeko patioan 100 metroko arinetan, frankismoaren eta ergelkeriaren erresumatik eskapatzeko entrenatzen, 100 metro ez, baizik maratoni amaitezin bat tokatu zaigun arren gero, eta irakurtzen hasiko zen orduan, eta futbolekin, eskuineko aurrelari moduan milioiko etxeetarantz jaurtitzen, eta ezkutuan erretzen, celtas laburrak edo tabako errubioa, Padre Daguerregaz frantsesa ikasten, eta behelainotan pintatzen, Joan Mirórenak bezalako formak eta mantzak, buruz behera interpretatzen zituenak Jose Julianek, eta uste dut abokatu ikasketak egin zituela aita konforme uzteko, koadrila alegerarekin tabernaz taberna edaten zuen artean Deustuko iluntzea, edo milimetroaz maitemindu zen efanterearekin konspiratzen zuen goizaldean argiaren bila, eta hala eramane gintuen behin Barkoxera hango mendi barrenei argi berezia zeriela kontatuz, eta etxean bezala sentitu ginen lekutan, mihinaren gainetik umetan kenduta zizkiguten euskal berbekin solasean, hagatik du Jose Enrikeren euskarak Iddorretakoaren eta aldi berean Barkoxekoaren soinua, eta Momoitioko gorpezurrena eta Erronkariko elur ur latsena, eta argiaren bilaketak okerbideak dituenek, 1981eko otsailean Tejeroren estatu kolpean parte hartu zuen tanke batetan sartuta, baina bere buruaren jabetza errekupeaturaz Tangerangen jarraitu zuen argia bilatzen, eta txokolata erretzen, eta orduan pintatutako koadroa daukagu salako etxean eta egia da muino gaineko etxeak amaitu gabe ematen duela, baina gertatzen zen etxeok argia edaten zutela, eta gero, Jose Enrikeren bizitzaren errepaosoarekin jarraitzeko, non zebilen Karmelo galduta han galdu zen *Kapo* ere, amamaren isilpeko artxipiela-goan, malekoiko harresiaren gainetik oraindik kokuioak zebiltzala, Casablancako Kristoak uda arratsaldeetako ekaitz oineztarriak saihesten zituela boxeolariak kontrarioaren kolpeak bezala, eta hala heldu zen denborarekin Jururúko badiara, giza-begik begietsi duten lurralde ederraren eta atseginenera, non eta eguzkia kasabearen tamainukoa den, koadroetan pintatu duenez, eta hor ibili da azkenengo urteotan obserbazioaren objektibitatearekin ziguatera aztertzen, geometriaren subjektibitatearekin flamboianaren itzalaren margoa estimatzen, ametsen munduko bide helburu gabeekin hausnartzen, beste zibilizazio batzuren eza-gutzaz guajiroekin eztabaidan, eta 12 gradu duen Hatueyarekin politikaz eta arteaz panfletoak zirriborratzen, hau da, errealtatea pintura eta literatura bihurtzen, eta gainera, pintura eta literatura errealtate bihurtzen, eta Jururúko argia enboteilatzen ikasi duenez gero, enkoadratzen esan nahi dut, argi apur bat horruntz eramaten ere hasi da, Ebroko baserri-rik ja ez ei dagoen arren, Iddorretadurangoetara bueltatzen delako *Kapo* lantzean behin, domusantu egunean eta beste batzuetan, bere argi arraroekin, ze badakizue zer esan zuen Jose Martik, bi aberri zituela, Kuba eta gaua, baina *Kapok* Jose Julianek baino aberri gehiago ditu, Euskal Herria eta Kuba, gaua eta argia, pintura eta literatura, iraganari zorra eta alegrantzia, eta gainera, enpresa bat kudeatzen du inportazio-espertazio imajinarioena, koloretako amuak ekartzen ditu Sortaldeko arradetara eta argi enkoadratua eramaten du horruntz, denok edateko bezainbeste, Jururúko argitik, Jurantzoneko arnotik edo Santiagoko ronetik bezala, ez dago motiborik pentsatzeko Jururúko argia gorputzarentzat eta gogoarentzat onuragarria ez denik, hor duzue laster erakusketa, Durangon bertan paratuko duena, beraz, zabaldu begiak eta edan lasai koadroei darien argitik, hor dituzue formak eta koloreak eta, aspaldiko ipuin batean *Kapok* berak Rabelaisen aipu batekin gonbidatzen zigun legez, *Lagonak, edatera!*, ba horixe, lagunok, hortxe dugu koadroetako argia begietatik edateko.